



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017KO IRAILAREN 22AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Itziar Arratibel Imaz**

Etorri diren zinegotziak:
Jon Mikel Iglesias Otegui
Jesus Peñagarikano Labaka

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2017ko irailaren 22an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2017KO IRAILAREN 7KO AKTAREN ONARPENA

2017ko irailaren 7an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2017ko irailaren 7an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-2017KO IRAILAREN 1EAN BURUTURIKO KIROL BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

2.1 KIROLDEGIKO ORDUTEGIA ZABALTZEA

Belabieta kiroldegiaren erabilera asko handitu da azken urteetan. Bertan aritzen diren kirol taldeak handitu egin dira eta ondorioz, kantxa eta frontoiaren erabilera askoz handiagoa da egun.

Hori dela eta, oso zaila gertatzen da bertako erabiltzaile diren Lauburuk, Belabieta Gimnasia erritmikako taldeak eta Sendi ekintzako pilota eskolak egiten duten Belabieta kiroldegiaren erabilera koadratzea.

Horregatik, Kiroldegiaren ordutegia zabaltzea aztertu da. Horretarako, BPXport enpresarekin hitz egin da, ikusteko ze aukera legoke, eta ze kostu izango lukeen horrek. Hasiera batean, ordutegi zabaltzea kirol denboraldiak irauten duen bitartean izango litzateke, hau da, irailetik ekainera. Ordutegi berria honakoa litzateke:

Astelehenetik ostiralera: 8:00 – 13:00
15:00 – 22:30

Larunbatetan: 9:00 – 14:30
16:00 – 21:00

BPXport enpresarentzat ez dago inolako arazorik ordutegi hori aplikatzeko eta kostua kalkulatzeko garaian, adierazten digu astea 3,5 ordu gehiago fakturatuko litzateke, eta horiei Pleguetan zehaztutako prezioa aplikatuko liekela. Gutxi gorabeherako aurrekontua prestatua, honakoa izango litzateke irailetik ekainera bitarteko aurrekontua: 4.143,52 €

Kontuhartzaitza sailaren hitz egin da, eta ez dago arazorik zerbitzuaren zabaltze hori aurrera eramateko. Partidan nahiko diru dagoela adierazi du behin behineko kontuhartzaitzaileak.

Ikusita, Kiroldegiko zerbitzuak esleitzeko pleguetako 14. Artikuluko a puntuak dioena:

a) Xedeari dagokionez: Kontratua sinatutakoan, udalak aldaketak ezar ditzake zerbitzua osatzen duten elementuen interes publikoko arrazoiengatik, beti ere, beste behar batzuegatik edo ezusteko arrazoiengatik baldin bada. Kontratistak ez du kalte-ordain eskubiderik izango, ez badiote oreka finantzarioari eragiten.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Administrazioak egindako aldaketek eragin ekonomikorik ez badute, kontratistak ez du kalte-ordain eskubiderik izango arrazoi horrengatik.

Ikusita, udal teknikariak egindako txostena.

2017ko irailaren 1ean buruturiko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea Kiroldegiko ordutegia zabaltzea herriko elkarteek dituzten beharrei erantzuteko eta herritarren onurarako delako, ordutegi horretan ere erabili ahal izango dutelako kiroldegia.

BIGARRENGOA.- Onartzea Belabieta kiroldegirako honako ordutegia zehaztea irailaren 4tik aurrera aplikatzeko:

Astelehenetik ostiralera: 8:00 – 13:00
 15:00 – 22:30

Larunbatetan: 9:00 – 14:30
 16:00 – 21:00

HIRUGARRENGOA.- Onartzea ordu gehikuntza honek ekar dezakeen kostua. Orduak ezin direnez guztiz zehaztu, 4.143,52 €ko gehikuntzaren aurikuspena egiten da. Prezioak aldaketa jasan dezake baldin eta ordu gehiago sartzen badira hilabeteetan.

LAUGARRENGOA.- Kontuhartzailletza sailari akordio eta aldaketa honen berri ematea, kontuan har dezan 2017ko eta 2018ko aurrekontuetan eragina duelako.

BOSGARRENGOA.- BPXport enpresari jakinaraztea eta beraiekin aldaketak jasotzen dituen kontratu berri bat sinatzea. .

2.2 ERABILTZAILEEN TXARTELAK EGITEKO IMPRESORA

Kiroldegiko erabiltzaileen txartelak egiteko erabiltzen den inpresora matxuratu egin da,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

gure hornitzailea den Gesmay SL enpresarekin harremanetan jarri eta inpresora horrentzako ordezkotz piezarik ez dagoela esan digu. Egoera honen aurrean bi proposamen helarazi dizkigu enpresak:

Orain arteko sistema mantendu eta inpresora berria eta zintak erostea eta horrek 2.729,76 euroko aurrekontua izango luke edo bestela sistema aldatu eta hurbiltasun sistema jartzea.

Sistema aldatzeak eskatuko luke ez bakarrik inpresora baizik eta irakurgailuak, erabiltzaileen txartelak eta abar aldatu behar izatea. Sistema hau jarri nahi izanez gero, aurrekontua 4.729,76 eurokoa da.

Inpresora berria erosteko nahikoa diru ez dago partidan, baina kontuhartzailearekin hitz egin dugu eta hurrengo kreditu aldaketan dirua sartuko dugula adostu dugu.

2017ko irailaren 1ean buruturiko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea egungo dagoen sistema mantentzea eta ondorioz inpresora eta zintak bakarrik erostea 2.729,76 €ko aurrekontuarekin.

BIGARRENGOA.- Ordainketa 220.340.00.03 partidatik ordainduko da.

HIRUGARRENGOA.- Egun aipatu den partidan nahikoa kreditu ez dagoenez, Udal kontuhartzailearen onospena izanik, 220.340.00.03 partidan 2.729,76 €ko kreditu gehikuntza egiteko baldintzapeko konpromisoaz, inpresora erostea.

LAUGARRENGOA.- Gesmay S.L enpresari akordio honen berri ematea.

2.3. KIROLDEGIAN EGINDAKO OBRAK

Mikel Iglesiasek, kiroleko zinegotziak, Kiroldegian egin diren obren berri ematen dio batzordeari. Hiru aldaketa egin dira: argiteria aldatu eta gutxiago kontsumitzen duten argiak jarri dira, lonetako kableak aldatu dira eta markadoreko bonbilak aldatu dira.

Kiroldegiko argiei dagokionez, kantzako argiak gutxiago kontsumitzen duten beste argi batzuegatik aldatu behar zirela ondorioztatu zuen udalak egindako azterketa energetiko batek. Hori dela eta, Setalde enpresari esleitu zitzaion argi kopuru bera mantendu baina gutxiago kontsumitzen zituzten argiak hornitzeko, eta Ibarra argilanak enpresari esleitu zitzaion argiak aldatzeko lana.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Abuztuan lanak egin ondoren, argiaren neurketa egin du eta Setaldekin hornitutako argiek ez dute ematen azterketan adierazi ziren 700 lumenak. Setalderekin hitz eginda, hipotesian akats bat egin dutela onartu dute, eta berori konpontzeko argiak lekuz aldatu beharko lirateke, eta kantzara begira jarri. Berak asumituko lukeela aldaketa hori baina udalak jarri beharko luke elebadorea. Elebadorea beti kontratutik kanpo egon den gaia izan da eta Udalak elebadorea jartzea beregain hartu izan du beti.

2017ko irailaren 1ean buruturiko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA.- Alokatzera elebadorea argien aldaketak egin ahal izateko eta bide batez, beharko balitz, markadore berria instalatzeko.

HIRUGARRENA:

3.-2017KO IRAILAREN 13AN BURUTURIKO HIRIGINTZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

3.1 LMG LAURKO INMOBILIARIAK APATTAKO C1 ETA C2 PARTZELEI BURUZKO KONTSULTAREN INGURUAN ERANTZUNA

Lmg Laurko Inmobiliaria, S.L. enpresak Apatta poligonoan dauden C1 eta C2 partzelen inguruko kontsulta urbanistikoa aurkeztu dio udalari.

Idatzian dio C1 partzelaren jabea izanik C2 partzela erosteko interesatua dagoela baldin eta gaur egun C2 partzelaren behe oineko okupazioaren zati bat C1 partzelan gauzatzea posible bada.

Idatzian 3 gai kontsultatzen dira: Lehena, aprobetxamendua, bigarrena, hirigintza tramitaziorako kudeaketarako beharrekoak diren tresnak, eta hirugarrena, hirigintza jardueraren ondorioz, sortutako gainbalioei buruzkoa.

Udal arkitektoak txostena egin aurretik Aldundiko Lurralde Antolamenduko departamentuarekin kontaktuan jarri da argitzeko Ibarako udalaren eskumeneko tramitazioa izan daitekeen edo ez. Izan ere, 2008 urtean Apatta I eko plan partzialaren izapidetzea Aldundiaren departamentu horrek izapidetu zuen. Aldundiak argitu du bi partzela hauen ordenazio xeheturiko baldintzak aldatzeko eskumena duen organoa Ibarako udala dela gaur egun kontsolidaturiko hiritarturiko lurzorua direlako.

Ikusi da udal arkitektoak egindako txostena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017ko irailaren 13an eginiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: LMG enpresak egindako kontsultari aldeko erantzuna ematea ondorengo baldintzarekin: Ibarra kokatzen diren C1 eta C2 partzelen ordenazio xehatua aldatzeko eremu horretako Plan Berezia izapidetzea eskatzea Ibarra udalari. Plan Berezi horren tramitazioan ez da ingurumen ebaluazio berririk egin behar, eremua hiritarturiko hiri lurzorua delako eta erabilera industrial mantentzen delako.

BIGARRENGOA: Erantzunaren berri ematea LMG Laurko Inmobiliaria, S.L.ri eta C2 partzelaren jabea den Tailsa enpresari.

3.2 TXULONE BASERRIAREN HURRE- HURREKO AURRI -DEKLARAZIO PARTZIALA ETA 271/2017 ALKATE DEKRETUAREN ONDORIOZ EZARRITAKO ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEN ZERGA ITZULTZEA.

271/ 2017 Alkate dekretu bidez Txulone baserriaren ekialdeko ukuilua eta hegoaldeko oilategi eta portxeak eraisteko obra lizentzia jaso zuten Xabier Sarasola Azaldegik eta Nagore Mendibil Esnaolak.

Orain obra amaierako agiriekin batera Txulone baserriaren portxe eta ekialdeko ukuiluaren hurre-hurreko aurri- deklarazioa eskatu dute eta egoera hori kontuan harturik ezarritako Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko zergaren itzultzea aipaturiko ordenantzaren 4.9 puntuan kontuan hartuta.

Ikusi da udal arkitektoak egindako txostena

2017ko irailaren 13an eginiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENGOA- Hurre-hurreko aurri -deklarazio egitea honako erakinaren zati honi: Ibarra Orietapea 10 zk.an, landa eremuan dagoen baserriaren portxea eta ekialdeko ukuilua. Eraikina 767700008 katastro erreferentzia duen finkan dago, Txuloenena lursailean. Zehazki aurri deklaratzeko ondorengo bolumena: 125,46 metroko azalera -oina duten terrazak eta 70,14 m2ko azalera eraikinaren anexoak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENGOA.- Itzultzea obratako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko jarritako 2.739,06 euroko fidantza.

HIRUGARRENGOA- 217,14 euroko zerga itzultzea hurre-hurreko aurri-deklarazioa aintzat harturik, eta Ander Agirrezabala Vitoria eta Jone Azaldegui Balda arkitektoek finkaren zatia berehala erortzeko egoeran zegoela ziurtatu dutelako.

LAUGARRENGOA.- Interesatuari jakinaraztea

LAUGARRENA:

4.- 2017KO IRAILAREN 15EAN BURUTURIKO GIZARTE POLITIKAK ETA POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUN BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

4.1 ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA. KONTRATUA LUZATZEA

289/2015 alkate dekretuak honako ebazpena eman zuen, 2015eko irailaren 24an:

LEHENA: Esleitzea ILARKI ETXEZ ETXEKO ELKARGOARI Ibarako etxez-etxe laguntza zerbitzua, 19,17 euro/orduko prezioarekin astelehenetik ostiralera eta 23,15 euro/orduko prezioarekin asteburu eta jai eginetan (BEZ salbuestsita)

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da. (berariaz luzatu ahal da eta elkarren artean adostu eta gero urte beteko beste bi epez), kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Irailaren 30ean betetzen ditu esleipen honek bi urte.

Ixiar Arratibelek, Gizarte Politikako zinegotziak, zerbitzuaren kudeaketa eta asebetetze maila ikusi ondoren, kontratua luzatzea urte betez, proposatu du.

Ikusirik Ilarki Etxez Etxeko elkarteak kontratua luzatzeko asmoa agertu duela.

2017ko irailaren 15ean eginiko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENGOA- Onartzea etxez-etxe zerbitzuaren kontratua ILARKI ETXEZ ETXEKO elkartearen alde luzatzea urte betez (kontratua amaitzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Ilarki Etxez etxeko elkargoari eta Kontuhartzailletza sailari.

4.2 JUBILATUEN TABERNA USTIATZEKO PLEGU BERRIAK

JUBILATU TABERNAREN emakidadunek, gutun baten bidez, 2017ko abuztuaren 31n deusetatutzat eman zuten kontzesioa. Jarduera bideraezina izatea aipatzen zuten arrazoi.

Honen aurrean, udala hausnartzen ari da zer egin tabernarekin gerora begira. Aukeren artean, taberna eta lokala fisikoki birmoldatzea, jardueraren bideragarritasuna aztertzea, e.a.

Zerbitzua ematea ezinbestekoa da jubilatuen eskaerak entzun ondoren. Egun zerbitzurik ez dugu eta presazko prozedura martxan jartzea beharrezkoa da.

Plegu berriak aurkezten dira presazko prozedura bidez emakida egin dadin.

2017ko irailaren 15ean eginiko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENEGOA: Onartzea Jubilatuen Taberna ustiatzeko prozedura berria martxan jartzea eta presazko prozedura bidez egitea deklaratzeko

BIGARRENGOA: Onartzea I eranskinean aurkezten diren Jubilatuen Taberna ustiatzeko pleguak.

HIRUGARRENGOA: Pleguak argitaratzea eta Ibarra Udaleko Web orrialdean argitaratzea.

I. ERANSKINA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BALDINTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA JUBILATUEN ELKARTEKO TABERNAREN USTIAKETAN PARTE HARTZEKO.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xeda hauxe da: Ibarako erretiratuaren elkartearen ustiaketa esleitzea (jabari publikoko ondasunen gaineko erabilera pribatiboaren emakida). Horretarako presazko prozedura ireki bidezko lehiaketa erabiliko da (2017ko irailaren 22ko Gobernu batzordeak hala onartua)

2.- ARAUDI APLIKAGARRIA

Emakida plegu honetan jasotako baldintzen arabera egingo da.
Administrazio emakida -kontratu hau ondare arloko legeri bereziari eta ondorengoari jarraituz egingo da:

- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 legea, aplikagarri zaionetan
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legea eta toki araubidearen arloko gainerako xedapenak.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena.

Emakida baldintza administratibo eta teknikoen pleguei jarraiki egingo da, eta lehiaketari dagokionez azaroaren 14ko 3/2011 legegintzako dekretuak, **Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina** onartzen duenak, araututakoa beteko da. Horrez gain, lege hauek arautuko dute: urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioetako Kontratuaren legearen Erregelamendu orokorra onartzen duena, eta gainerako administrazio araudia eta horren ezean zuzenbide pribatuko araudia.

3.- EMAKIDA KONTRATUAREN IRAUPENA.

Emakidaren iraupena gehienez 5 urtekoa da, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita.

Urtero kontratua luzatzeko aukera egongo da beti ere alderdien onespen espresua emanaz. Urtero kontratuaren luzapena sinatu beharko da bi alderdiek horrela adostuz gero. Luzapena kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dio esleipendunak Udalari eta Gobernu Batzordeak erabakiko du luzapenaren onarpena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aldez aurretik Udalak jakinarazten du luzapenak ez direla automatikoki egingo eta Udalak bere behar edo eskaerak kontutan hartuz aukera izango duela kontratua ez luzatzeko beti ere horren berri 3 hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio emakidadunari.

4.-ERABILERA PRIBATIBOAREN EMAKIDAN EZARRITAKO HILEKO KANONA.

Ibarrako Udalak ez du kanonik eskatuko Jubilatuen Elkarteko Tabernaren ustiaketaren emakidadunari.

5.- BEHIN BETIKO FIDANTZA

Plegu hauen araberako emakidaren adjudikazio-hartzaileak behartuta dago **300 EUROKO** behin betiko fidantza ezartzera kontratuaren berme gisa.

ESLEIPENAREN IZAPIDETZA, PROZEDURA ETA SISTEMA

1. Tramitazio mota: **PRESAZKOA (3/2011 LED.aren 112 art.ari jarraiki)**
2. Prozedura: Irekia
3. Esleipen sistema: Lehiaketa

6.- PUBLIZIDADEA

Lehiaketa bat denez, apirilaren 18ko 781/86 legegintzako EDaren 118-1 art.ak xedaturikoa betez, eta testu berak 122 art.an dioenaren arabera

7.- KONTRATAZIO ORGANOA

3/2011 legegintzako EDaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, esleipen hau Gobernu batzordeak egingo du (180/2015 alkate dekretuan jasotako eskuordetzaren arabera)

8.- DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA ESKURATZEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarra udala, San Bartolome plaza 2, 20400 Ibarra.

Telefonoak 943-67.11.38- Fax 943-67.38.52

www.ibarra.eus (kontratzailearen profila)

9.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Lehiaketan parte hartzeko dokumentazioa Ibarra udal txeko bulego orokorretan aurkeztu behar da 8 eguneko epean lehiaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Proposamenak aurkezteko ordutegia hau da: Astelehenetik ostiralera goizeko 8:00etatik 14:00etara.

9.1 LEHIATZEKO GAITASUNA

Lehiaketan parte hartu ahalko dute pertsona fisiko eta juridiko guztiak baldin eta gaitasun juridiko eta jardutekoa badute eta Sektore Publikoko Legearen Testu Bateginaren 60 art.ak jasotzen dituen ezintasun edo bateraezintasun kasuetan aurkitzen ez badira.

- Ondasunen komunitateak ezingo dira lehiaketara aurkeztu.

PARTE-HARTZEKO HIZKUNTZ IRIZPIDEAK

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen **ondorio berdinak** izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, **zerbitzu hizkuntzak** euskara eta gaztelania izango dira.

- Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.
- Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuuzko interfazeak barne.

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; eta beraz, enpresak **administrazioarekin** dituen ahozko zein idatzizko **harremanak** administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren **jarraipena:**

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginekoko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.
- Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

1. Hizkuntza gaitasuna

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatu beharko du, ahozko mailan, bezeroekin harreman zuzena duten langileek. Hori



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ezingo balitz, zerbitzatzeko garaian bezeroak egindako hizkuntza hautuari erantzuteko gaitasuna izan beharko du gutxienez.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonak eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

2. Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezua ezagunak edo ulergarriak direnean

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin alde aurretik adostuta.

3. Erabilera herritarrekin

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea

4. Erabilera administrazioarekin

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.

9.2 AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dokumentazio gutunazal itxian aurkeztuko da eta atzealdean haxe adieraziko da:

“Ibarrako jubilatuen elkarteko tabernaren ustiaketan parte hartzeko proposamena”

Gutunazalal agiri hauek jaso beharko ditu:

1. Proposamen eredia, behar bezala bete eta sinatuta.
2. Eskaintza egiten duen pertsonaren NAN eta pertsona juridikoen kasuan enpresarioaren izaera juridikoa egiaztatzeko agiria.
3. Telefono zk. eta helbide elektronikoa.
4. Zerbitzua emateko dituen baliabide pertsonalak eta antolakuntzakoak.
5. Ostalaritzako proposamen eta proiektua (kontuan iznago dira zerbitzua ustiatzeko ideia berriak eta hobekuntzak)
6. Tabernaren erabiltzaileen zerbitzua hobetzeko eranstean dien zerbitzu berrien proposamen eta proiektua(kontuan izanda gehienak jubilatutak direla)
7. Enpresako memoria, lizitatzailaren jardueraren oinarritzko datuekin eta antzeko zerbitzuetan duen eskarmentua adieraziz.
8. Intereseko iritzitako eta lehiaketarekin zerikusia duten bestelako gorabeherak, horien egiaztatzeak eta guzti.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Esleipena egin ondoren, ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko dira kontratua sinatu ahal izateko (ez da beharrezko proposamenarekin batera aurkeztea, baina bai kontratua gauzatzeko; eta baldintza guztiak betetzen ez badira ezingo da lizitatzailerak kontratatu)

- a. Alta autonomoen erregimenean edo berau lortzeko konpromisoa, esleipen akordioan adierazitako epean eta bere iraungitze pean.
- b. 3/2011 legegintzako EDaren 60 art.an aurreikusitako inhabilitatze edo bateraezintasun kasuetan ez dagoela dioen zinpeko aitortza.
- c. Lehiaketaren baldintza ekonomiko eta administratibo guztiak onartzea eta bere parte-hartzearen edo emakidaren betebeharrak bere gain hartzea
- d. Jarduera ekonomikoen Zergan alta agiria edo behin betiko esleipen jakinarazpenean jasotako epean agiri hori lortzeko konpromisoa, berak adierazitako iraungitzearen pean.
- e. Subsidio eta aseguru sozialen arloan egunean egotearen erakundearen ziurtagiria
- f. Sozietate baten kasuan, sozietate horren eratze eskritura eta legeak hala eskatzen duenean erregistroan inskripzioaren egiaztatzea.
- g. Erantzukizun zibileko aseguru poliza eratzearen egiaztatzea edo bestela berau eratze konpromisoa, hirugarren pertsonen eta horien ondasunen eragindako kalteen erantzukizuna estaltzeko. Aseguru horretan aseguratuta izatera izango du, adjudikazio-hartzaileak eta **Ibarrako udalak** kontratu honekin zerikusia duen gutzirako. Poliza horren zenbatekoa ezingo da izan 1.000.000€ baino gutxiago. Udala eta bere ondasunak izango dira Hirugarren indemnizagarriak. Dokumentazio hori aurkezteko epea behin betiko esleipen jakinarazpenean adieraziko da, emakida iraungitzearen pean.

Behin entregatu eta onartu ondoren proposamena, berau ezingo du lizitatzailerak erretiratu.

9.3 ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik hoberena aukeratzeko irizpide hauek iznago dira kontuan:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. Ostalaritzako proposamen eta proiektua kontuan izanda zerbitzua ustiatzeko ideia berriak eta hobekuntzak (40 puntu)
2. Zerbitzu berrien proposamen eta proiektua zerbitzuaren erabiltzaileen bizi kalitatea hobetuko dutenak (bereziki jubilatuenak) (40 puntu)
3. Zerbitzuari atxikitako giza baliabideen zehaztapena eta antolakuntza.

10.- PLIKAK IREKITZEA

Plikak irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean. Jendaurrean egingo da udaletxean eta eguerdiko 12:00etan alkatearen edo berak eskuordetzen duenaren eta idazkariaren aurrean .

11.- BEHIN BETIKO ESLEIPENA

Kontratazio organoak , eskaintza hobereana aurkeztu duenari eskatuko dio egiaztagiriak aurkezteko (plegu honen 9.2 atalean jasotakoa). Horretarako epea hamar egun baliodun izango da adjudikazio jakinarazpena egiten denetik kontatzen hasita.

300 euroko behin betiko fidantza ezarri beharko da. Aurreko baldintzak betetzen ez badira, ulertuko da lizitatuak erretiratu egin duela eskaintza eta beraz, hurrengo lizitatuakari eskatuko zaio dokumentazioa.

Horrez gain, plegu honetako 9.2.g art.an adierazitako poliza kontratatzekeko primaren ordainketa egiaztagiria eta polizaren kopia aurkeztu beharko ditu.

12.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Adjudikazio-hartzailea behartuta dago udalak esandako egunean kontratua sinatzera eta berau eskritura publiko egin daiteke.

13.- EMAKIDADUNAREN AHALMEN ETA BETEBEHARRAK.

- a) Zerbitzua ustiatzea plegu honetan eta emakidaren agirietan jasotako moduan .
- b) Lagatuko lokalaren ur, argindar eta gasaren gastuen %50 ordaintzea (udalak ordainduko du beste %50, izan ere, gastuak zatietan dira taberna eta elkarteak lokal berean daudelako eta instalazio berak direlako)
- c) Lokaleko zabor tasa ordaintzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- d) Matxuratzen edo puskatzen diren tresnak (inbentarioan jasoak eranskinean) konpontzea.
- e) Erabilera txar edo okerragatik matxuratzen diren etxe-tresnak konpontzea.
- f) Etxe-tresna berriren baten (inbentarioan jaso gabea) gastua ordaintzea, zerbitzurako behar bada.
- g) Emakidaren helburua eta mugak errespetatzea eta zerbitzua era egokian ematen dela bermatzea.
- h) Udalaren jarraibideak begiratzea, eta udal agintariei edo funtzionarioei ikuskatze lanak baimentzea.
- i) Emakidadunak zerbitzua emango du emakidan adierazitako epean eta bere kargura izango dira gastuak, b puntuan jasotakoak izan ezik eta baita jarduerari dagozkion tasa eta zergak ere.
- j) Zerbitzuaren eskura jartzea beharrezko diren langileak, hutsegite, bajak...estaltzekoak barne.
- k) Erantzukizun zibileko poliza bat kontratatzea, 1.000.000 eurokoa, zerbitzua ematean hirugarrenei eragin daitezkeen kalteak estaltzeko, salbu eta derrigorrean udalak ezarritako klausula bat betetzeko egin bada.
- l) Emakidadunak debekatu egingo ditu alkohol edariak 18 urte beherakoentzat. Hango artikulua guztiak kalitate hoberekoak izango dira eta ez dira izango zerrendatukoak baino garestiagoak Ibarako udalak erabakiko du prezioen zerrendaren aldaketa, dituen interes sozialen arabera.
- m) Emakidadunak, betiere, elkarteko bazkideen lehentasuna zainduta, jangela publikoaren zerbitzua eman dezake.
- n) Tabernan beste jarduera batzuk ez ematea, ezta partekatuak direnean ere, salbu animazio sozio-kulturalekoekin zerikusia duten jarduerak, betiere, udalak alde zuzenetik ontzat eman badu, eta doako izaerarekin.

14.- UDALAREN AHALMEN ETA BETEBEHARRAK

- a) Ibarako udalak zeregin hauek ditu:
 - a. Egikaritze modua gainbegiratzea eta jarraipena egitea, eta burutzeko moduari buruzko jarraibideak ezartzea.
 - b. Polizia lanak egitea, zereginak behar bezala burutzeko.
 - c. Kontratua gauzatzeko zuzendaritza eta kontrol ahalak.
- b) Udalaren betebeharrak dira hauek:
 - a. Udalarenak diren eta inbentarioan jaso dituen etxe-tresnen ohiko mantentzeak sorturiko gastuak ordaintzea (gaizki erabiltzeagatik sortutako matxurak izan ezik)
 - b. Balio ez duten (zaharrak direlako) etxe-tresnak ordeztzea , betiere, udal teknikoek egiaztatzen badute ezin direla egoki erabili.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Kontratazio organoak, 3/2011 legegintzako EDak 210 art.aren arabera, eskumen hauek ditu:

1. Kontratuaren interpretazioa
2. Kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak konpontzea.
3. Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.
4. Kontratua suntsitzea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea.

16.- EMAKIDAREN AZKENTZEA .

Emakida suntsituzat emango da arrazoi hauengatik:

1. Emakidadunak arau-hauste larria egitea bere oinarrizko betebeharretan. Aurretik, hutsegiteak ohartaraziko zaizkio eta epe bat emango zaio- hutsegiteen nolakotasunaren arabera- hutsegite horiek konpontzeko. Kontratua suntsituko da epe horretan ez baditu hutsegite horiek konpontzen.
2. Kontratuan emandako epea ez betetzeagatik zerbitzua udalari itzultzea.
3. Udalak zerbitzua erreskatatzea, behar hori arrazoituko duen prozedura eman ondoren.
4. Porrot , ordainketa suspentsioa edo enpresarioaren heriotza aitortzea ; baita emakidadunaren erretiro edo ezusteko ezgaitasuna ere.
5. Pertsona juridikoaren porrot edo ordainketa suspentsioa aitortzea .
6. Emakidadunaren uko egitea (gutxienez bi hilabeteko aurrerapeanrekin)
7. Udala eta emakidadunaren arteko akordioa.
8. Legez estipulaturiko besteren bat.

17.- ESKUMENENKO EPAIMAHAIK

Emakidadunak uko egiten dio bere barruti eta helbideko epaimahaien jurisdikzioari eta Tolosako epaimahaiaren jurisdikzioaren menpe jartzen da kontratuaren interpretazio eta betetzeari dagokionean.

Ibarra, 2016ko irailaren 20a



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

EGINBIDEA : Jasota geratzeko baldintza plegu hau Udalbatzak onartu duela Tokiko Gobernu Batzordeak 2016ko irailaren 23an eginiko bilkuran.

ETXETRESNEN INBENTARIOA

SUKALDEA:

1.- SUKALDEA

Marka: JEMI

Urtea: noiztik (1997)

Egoera: ondo

Mantentzea

Inbentario zk: 001687

2.-KANPAIA:

Marka: ez du

Urtea : noiztik (1997)

Egoera: ondo

Mantentzea: ALLENDE TECNIC HOTEL enpresaren tel.: 943215806

Inbentario zk. : 001689

3.- HOZKAILUA:

Marka: CORECO

urtea: noiztik (1997)

Egoera: ondo

Egindako konponketak: motor aldaketa eta gas karga

Mantentzea : TENVER - Julian: 607427387

Inbentario zk.: 001682

4.- GALDARA :

Marka: SAUNIER DUVAL ISOFAST F35E ESTANKOA, 38Kw.

Urtea : 2003

Egoera : ondo

Mantentzea : SEMATEC. 943216679

Inbentario zk.: 001695

5.-ONTZI-GARBIGAILUA:

Marka: CO-501 FAGOR INDUSTRIAL (HOSFRINOR)

Urtea : 2016

Egoera : Ondo



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hornitzailea : HOSFRINOR. 943212128/943212138
Inbentario zk.: ez dago.

6.- FREIDORAK

2 UNITATE

Marka: FE-6 FAGOR INDUSTRIAL (HOSFRINOR)

Urtea : 2016

Egoera : Ondo

Hornitzailea : HOSFRINOR. 943212128/943212138

Inbentario zk.: ez dago.

7.- PLANTXA

Marka: PL-110C FAGOR INDUSTRIAL (HOSFRINOR)

Urtea : 2016

Egoera : Ondo

Hornitzailea : HOSFRINOR. 943212128/943212138

Inbentario zk.: ez dago.

TABERNA:

8.- GARAGARDOA ATERATZEKO:

Marka: FOSTERS-HEINEKEN. Mantentzea eta martxan jartzea garagardo hornitzaileak egin ohi du.

Urteak: 2016

Egoera : ondo

Mantentzea: CODIFESA 934740070

9.- ONTZI-GARBIGAILUA:

Marka: CO-400 FAGOR INDUSTRIAL (HOSFRINOR)

Urtea : 2016

Egoera : Ondo

Hornitzailea : HOSFRINOR. 943212128/943212138

Inbentario zk.: ez dago.

10.- KAFETERA:

Marka: C.M.A. SPA

urtea: 2002

Egindako konponketak: Batzuetan kareaz betetzen da, 3 hilabetetik behin ireki eta garbitu egin behar da.

Egoera: Ondo

20

GB 20170922



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Mantentzea: TENVER - Julian Teknikoa: 607427387/DANI teknikoak: 622205355.

*Kafea xehetzekoa ere dago

11.- KAMARAK

Marka: CORECO

Urtea: (1997)

Egindako konponketak: konprentsiara berria jarri zitzaion, 1500 € kostatu zen .

Egoera: Ondo

Mantentzea: TENVER - Julian Teknikoa: 607427387

Kamerak txikiak zirenez hornitzaileak beste kamera bat jarri zuen baina kendu egin zuten.

12.- ERREGISTRATZAILEA

Marka: ELCO-DATA CR-120

urtea: 2016

Egoera: ondo

Hornitzailea: Patxi Iparraguirre Garmendia: 678764562/943117857

11.- IZOTZ MAKINA

Marka: ICE LINE

Urtea: 10 urte gutxienez

Egoera: ondo

Mantentzea: Dani 622205355

2016-09-23

Sukaldeko inbentarioa

Egurrezko tresnak(goilare...) 7

Laban handiak 5

Laban txikiak 2

Ogi saskiak 7

Oholak (2 egurrezko/1 plastikozko) 3

Bandeja haundi metalezkoak 8

Metalezko eltze haundiak (tapakin) 4

Metalezko kazuela bajuak (4 neurri) 3

Labeko bandeja laukizuzenak 2

Salda katiluak 24

Razio platerak (portzelanazkoak) 16

Bandeja (portzelanazkoa) 6

Platerak (postrezkoak) 18

Plater txakonak 24

21

GB 20170922



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Plater txapalak 18
Buztinezko kaxuelak 7
Txinoa 1
Tapak (pintxotakoak) 2
Mikrouhin plater eta tapa 2
Kristalezko plater handi 1
Burruntzaliak 2
Guraizeak 1
Iragazki txikiak 2
Mami otarrak 22
Pisua (sukalderako) 1
Ozpin/olio ontzi 4
Sardexkak 43
Koilarak 36
Labanak 44

Tabernako inbentarioa

Mahai borobilak 2
Aulkiak (mahai borobilerako) 9
Mahai karratu 2
Aulkiak (mahai karraturako) 8
Tabureteak 4
Esne pitxerrak 2
Teontziak 3
Izotzontzia 1

5.-GALDE ESKAERAK

DUINTASUN ELKARTEAREN ESKAERA

1577 erregistro zenbakiaren, 2017ko irailaren 15ean, Maria Luisa Lizarza andreak Duintasun Elkartearen izenean Duintasun Elkarte (Gipuzkoako Jubilatutako eta pentsiodunen elkarte) Ibarako Udal erregistroan inskribatzea.

Idazkariak jakinarazten du, egun Ibarako Udalean ez dagoela elkartearen inolako erregistrorik. Beste herri askok bezala ez dugu oraindik horrelako erregistrorik



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aipaturikoa kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Jakinaraztea Duintasun Elkarteari egun Ibarra Udalak ez duela elkarteen erregistrorik.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Duintasun Elkarteari.

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu and.ak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hamar direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut